

eh'08 – eh'09
NAZIO PLANA



AURKIBIDEA:

Norabidea: Euskal Herriaren burujabetza.....	3
Nazio Eraikuntzaren balioa nazio gisa aurrera egiteko.....	4
Urteko Planaren helburuak.....	6
Urteko Planean eman beharreko urratsak.....	6
Lan egutegi orokorra.....	10

1. NORABIDEA: EUSKAL HERRIAREN BURUJABETZA

Euskal Herriak bizi duen egiturazko egoera egiturazko neurri eta egitasmoak abian jarritz eta garatuz gainditzeko joango gara. Egun Euskal Herriaren biziraupena bera kolokan dagoelarik, nazio gisa gorpuzten joateko, lurralde artikulazioa gauzatzeko eta dagozkigun eskubideak bermatze bidean jartzeko, gaurdanik urratsak behar ditugu eman. Erabakitze eskubidea noiz aitortuko zain egon gabe, Euskal Herriaren etorkizuna orainean eraikitzea funtsezkoa dugu, nazio gisa erabakiak hartuz eta garatuz.

2007ko Nazio Eztatanda, gatazka politikoari konponbide demokratikoa emateko elkarrizketa eta negoziazio prozesuaren hausturaren ostean burutu zen. Egoera zaila izanik ere, azken urteetan nazio gisa emandako urratsekin batera, bizi dugun abagunean jokoan dagoen auzia agerian geratu zen. Hots, egun Euskal Herrian indarrean den antolamendu juridiko- politikoaren agorpena argia da eta baieztapen hori Euskal Herrian gehiengo sozial eta politiko batek bere egiten du. Gainera, azken urteetan autodeterminazio eskubidean oinarritzen den aldatetaren aldeko lanak baldintza sozial eta politikoak indartu ditu eta honek guztiak ekarri du Euskal Herria aldateta politikoaren nolakotasunaren atarira.

Edonola ere, nazio gisa aukera handiak izan ditzakegun bezalaxe, arriskuak ere halakoak dira. Izan ere, aldateta horren norabidea oso ezberdina izan daiteke: Euskal Herria nazio gisa aitortu eta lurraldetasuna ardatz harturik bere etorkizuna libreki erabaki ahal izateko marko berria eskuratzea; edo espainiar eta frantziar estatuen baitan nazio gisa ukatuak eta zatituak izaten jarraitzeko moldaketa batzuetan oinarrituriko aldateta gertatzea dira aukera nagusiak.

Gauzak honela, ataka honen erdian, eh'07 Nazio Eztatandan nazio gisa aurrera egiteko Nazio Estrategiaren norabidea eta Euskal Herriaren burujabetza lortzeko, oinarri nagusiak adostu ziren:

- Euskal Herriaren NAZIO AITORTZA.

Munduko beste edozein naziori dagokion gisan, Euskal Herriak aitortza politikoa behar du. Nazio bat garenaren onarpenetik, proiektu politiko guztiak bide demokratikoen bidez defendatu eta gauzatzeko aukera zabalduz.

- Eskubide kolektibo eta indibidualen aitortza.

Euskal Herriak nazio eskubideak dituen bezalaxe, euskal herritarrok ere eskubideak ditugu. Eskubide horiek guztiak, kolektiboak eta indibidualak, Euskal Herri osoan aitortuak izan behar dira eta bermatuak izateko aukerak eta mekanismoak ezinbestez zabaldu behar ditu agertoki politiko berriak.

- Lurraldetasuna, zazpiak bat.

Euskal Herria zazpi lurraldek osatzen dute eta egun bizi dugun zatiketa gainditu eta zazpiak bat batzeko aukera irekitzen joatea ezinbestekoa da. Aukera hori egiazkoa izan dadin, lurraldetasuna ardatz harturik urrats eta bitarteko zehatzez egituratu behar da Euskal Herria.

- **Autodeterminazioa, erabakitzeko eskubidea.**

Euskal herritarrok Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzeko eskubidea aitorturik behar dugun bezalaxe, eskubide hori gauzatzeko aukerak eta bideak behar ditugu. Estatu espainiar eta frantsesari, autodeterminazio eskubidearen gauzapeanaren bitartez euskal herritarrok hartzen ditugun erabakiak errespetatzea dagokie.

2. NAZIO ERAIKUNTZAREN BALIOA NAZIO GISA AURRERA EGITEKO

Euskal Herriaren eraikuntza lanak sustrai historikoak ditu. Garaian garaiko ezaugarri eta egoerak tarteko, dugun nazio kontzientzia kolektiboa abiapuntu harturik, gure izaera eta identitatearen aldeko lana aspaldikoa da. Azken hamarkadatan, nazioaren eraikuntza modu antolatuagoan eta dagozkigun eskubideen alde aurrera eramateko gaitasuna izan dugu.

Egun, milaka lagun ari gara eskubideen aldeko dinamika sozialetan, eraikuntza proiektu edo egitasmo ezberdinetan murgildurik... eta zer esanik ez, Euskal Herrian dinamika horiek sustatzeko eremu ezberdinetan ehunka eragile eguneroko lan horien sustatzaile gara. Eremuz eremu, nazio mailan, herrika edo auzoka... euskararen normalizazioaren alde, hezkuntza sistema nazionala bultzatzeko proiektuetan, eredu sozial eta ekonomiko berria aldarrikatuz, kirol selekzioaren inguruan indarrak bilduz, emakumeen eskubideen defentsan edo eta naziotasunaren aldeko dinamiketan egiten ari den lana handia da. Herri bizia eta herri mugimendu aberatsa dugula ondoriozta dezakegu.

Nazio eraikuntzaren lanaren oinarrian ukazio egoera dago. Kasu gehienetan, eskubideen urraketa, erabakiak hartzeko ahalmen eza eta lurralde zatiketa dira egiturazko ezaugarri komunak, ñabardurak ñabardura. Funtsean, egoera hori gainditu eta Euskal Herria nazio gisa bizi eta garatzeko xedea dago lan honen guztiaren atzean. Egiten ari garen lana eskubideen urraketatik bermera igarotzeko lana da. Lurralde zatiketarik zazpiak batzera iristekoa. Euskal Herria nazio gisa bizi dadin ari gara lanean.

- **Nazio eraikuntzaren bitartez, burujabetzarantz urratsak eman**

Beraz, nazio eraikuntza lanaren bitartez, modu batez edo bestez, Euskal Herrian egoera berri bat lortzeko ahalegin handiak egiten ari gara eta hain zuzen ere, egoera hori aldaketa politikoaren mamiekin bat datorrela esan dezakegu: eskubide guztien bermea, lurraldetasuna eta erabakiak hartzeko ahalmen osoa eskuratzea dira xede nagusiak. Honek, nazio eraikuntzak aldaketa politikoaren lorpenean jokatzeko duen eta joka dezakeen funtzio garrantzitsua azaleratzen digu.

Izan ere, Euskal Herriaren subjektuaren definizio eta garapen horixe da nazio eraikuntzaren bitartez egiten ari garen lana eta zinez garrantzitsua da baldintza sozial eta politikoak indartzea, dagozkigun eskubideak aitortu eta bermatuak izateko mekanismoak jar daitezen. Eskubideen definizioa egiteko nazioarteko itunek erreferentzia argiak ezartzen dituzten arren, dagozkigun eskubideak eskuratzeko herri lana ezinbestekoa da. Horixe izango da Euskal Herrian dagozkigun eskubideak ezagutuak izateko berme nagusietako bat.

- **Nazio eraikuntzaren bitartez, lurraldea egituratu**

Honekin guztiarekin batera, lurraldetasuna aldarrikapen izatetik haratago, praktika sozio politikoa izanik, subjektua bera eraikitzen ari gara. Nazio osoa aintzat hartzen duten dinamika sozialak, proiektu eta egitasmo estrategikoak, auzolan dinamikak, elkar ezagutzeko ekimenak, elkarlan bideak... Euskal Herriaren egituratzean duten balioa nabarmentzea garrantzitsua da. Ez da kasualitatea azken urteotan bi estatuek lurralde egituraketan urratsak emateko gure herrian abian jarritako hainbat proiektu estrategikoren edo subjektu sozial-politikoaren aurka egin izana, Udalbiltza izanik horien lekuko argia.

- **Herri mugimendua eta herritarrak, aldaketarako aktibo soziala**

Eremuz eremu indar metaketan eta elkarlanean oinarrituriko dinamikak oso ugariak dira. Ikuspegi ideologiko ezberdinak izanik ere, egitasmo ezberdinetan indarrak biltzeko gaitasuna handia izan da urteotan. Ezberdintasunen gainetik, Euskal Herria eraikitzeko beharrak eta norabide horretan herri honek dituen beharren inguruan batzen gaituzten elementu asko baitaude. Askok aipa badaitezke ere, indar biltzean edota herritarren atxikimenduan azken urteotan aipagarriak izan dira: Euskal Curriculum, Euskal Unibertsitatea, Hezkuntza Akordioa, euskararen normalizazioaren aldeko egitasmoak, euskal selekzioaren aldeko dinamika, Emakumeen Eskubideen karta, Euskal Herriko Gazteriaren Kontseiluaren sorrera... Beraz, nazio eraikuntzaren alde indarrak metatu eta elkarlanean aritzeko joera eta gaitasuna nabarmendu beharreko elementu garrantzitsua dugu.

Hau guztia aintzat harturik, nazio eraikuntzaren praktika sozio politikoa eta lan horretan murgildurik dagoen herri mugimendu eta jendarte sare zabala aktibo sozial eta politiko oso garrantzitsua da Euskal Herriak bizi duen ataka honetan beharrezkoa dugun aldaketa politikoa hezurmamitzeko. Eguneroko lanean eta eremuz eremu urratsak ematearekin batera, norabide berean arraun egin eta nazio gisa dagozkigun eskubideak eskuratzeko bultzada berri bat emateak sekulako garrantzia du. Gure herrian aldaketa politikoaren aldeotasun soziala gorpuztuz, nazio bezala geure buruaren jabe izateko urrats berriak emango ditugu.

- **Nazio eraikuntza: indarrak batu eta nazio gisa aritzeko**

Nazioa eraikitzeaz ari garenean, estatuen aitortza politikoaren esperoan egon gabe, subjektu politikoa gorpuzteaz, lurraldea batzeaz eta nazio egiten gaituzten zutoinak garatzeaz ari gara. Finean, abertzaletasunaren helburu politikoa den burujabetza osoa lortzeaz. Eta bide horretan, ezinbestean indarrak batu eta nazio gisa urrats sendoak ematea funtsezkoa da: nazio instituzio propioak eraikitzeak; euskararen berreskurapen osoa lortzeko; hezkuntza sistema nazionala eskuratzeko; beharrezkoak ditugun tresna juridiko eta politikoak erdiesteko... Estrategia oso bat diseinatu eta garatzeko premiarekin batera, helburu horien alde gaudenon arteko adostasunak eraikitzea ezinbestekoa da. Euskal Herriaren eraikuntza estrategiak abertzaleon, herri sektoreen eta herritarren indar metatze handi bat eskatzen du. Gure ordez Euskal Herria ez baitu inork eraikiko.

3. URTEKO PLANAREN HELBURUAK

- Euskal Herriaren aldaketarako eta euskal nazioaren garapenerako burujabetzaren premia zabaldu. Lurraldetasuna- zazpiak bat, Euskal Herriaren aldeko nazio estrategia eta praktikaren enbor nagusia bilakatzeko pausoak emanaz.
- Norabide horretan, mezu, egitasmo eta praktika zehatzen bitartez nazio eraikuntzaren balioa indartu. Urrats praktikoak ematen jarraitu.
- Horretarako, nazio osoko indarrak biltzeko eta aktibatze ahalegina indartu, herri sektore eta eragile ezberdinen elkarlan bideak sakonduz eta herritarren- abertzaleen parte hartzea sustatuz.
- Euskal Herriaren egoera kezkarria aintzat hartuz, egiturazko hausnarketa sakona abian jartzeko lehen urratsak eman eta eh'09 Nazio Eztabaidan kokatu.

4. URTEKO PLANEAN EMAN BEHARREKO URRATSAK

4.1. eh'08- eh'09 ALDIRAKO LERRO ETA EGITASMO NAGUSIAK.

- **Hezkuntza Sistema Nazionala gorpuzten jarraitu.**

Azken urteetan, Euskal Herrian hezkuntza esparruari dagokionez, urrats garrantzitsuak eman dira. Orube nagusi gisa Oinarrizko Hezkuntza Akordioa kokatu behar da. Euskal Curriculum edo Euskal Unibertsitatearen proiektuaren inguruan eman urratsak ere nabarmendu behar direlarik. Egitasmo hauetan guztietan, nazio strategiaren ikuspegian urrats garrantzitsuak eman dira. Beharrezkoa da emeki, hilabeteotan proiektu hauetan eman beharreko urrats berrien definizioa eta garapena behar bezala gauzatzea. Hezkuntza esparruan erronka orokor horri eutsi ez ezik, Euskal Unibertsitatearen proiektuaren garapenari arreta berezia eskainiko zaio:

Euskal Unibertsitatea.

Euskal Herriarentzat Euskal Unibertsitatea eraikitzeak duen garrantzia estrategikoa handia da. Azken urteetan, proiektu honen definiziorako eta garapenerako eman diren urratsak nabarmentzekoak dira. 2008ko ekainean gauzatu zen Fundazioaren sorrera, pauso berriak eman ahal izateko urrats garrantzitsua izan zen. Datozen hilabetei begira, helburu eta urrats nagusiok finkatzen dira:

- Euskal Unibertsitateak beharrezkoa duen babes- onarpen legala bultzatzea.
- Azpiegitura eta babes ekonomikoaren eremuan urrats berriak ematea.
- Eskaintza akademikoaren zehaztapenean pausoak ematea. Adituen ekarpenekin eskaintzaren definizioa eginez.

- Herri sektore eta eragile ezberdinekin proiektuaren egoera eta urrats berriak elkar trukatu dira. Hori jardunaldi nazional batzuen bitartez gauzatu litzateke.
 - o Proiektuaren ezagutza zabaltzeko.
 - o Herri mugimenduan lanean dabilen jendearen ekarpena biltzeko.
 - o Herri eragile ezberdinek aurrera begira joka dezaketen paperaz hitz egiten hasteko.
- Aterako liratekeen ondorioekin, eh'08- eh'09 aldirako sozializazio eta atxikimendurako proposamen bat lantzen hasiko ginateke.

- **Zazpiak bat auzolanean dinamika.**

Euskal Herrian auzolanaren praktika askotarikoa eta anitza da. Hori iraganean eta gaurko garaian ere errealitate bat da. Halere, azken urte hauetan “zazpiak bat” ideari loturik, lurralde ezberdinetako sektore eta herritarren arteko harreman eta kolaborazio bideetan urrats berriak eman dira. Bide horretan jarraitzea ezinbestekoa da. Horretarako, datozen hilabeteetarako egiteko nagusi hauek finkatzen dira:

- Auzolan dinamika eskatzen dituen antolaketa eta urratsen definizioan pausoak eman:
 - o Auzolanaren zehaztapenean sakondu eta aurrera begirako erronka orokorrak behar bezala definitu.
 - o Horretarako, gune nazional eta zabal bat eratzeko urratsak eman.
 - o Auzolana garatu ahal izateko lurralde ezberdinetako pertsona ezberdinekin harremanak garatu ekarpenak bilduz.
- Zuberoaren garapenerako azken urteetan eman diren urratsei jarraipena emango zaie urtean zehar. 2008an argitaraturiko DVD bitartez, Zuberoaren egoera eta erronkak ezagutarazteaz gain, kolaboraziorako aukera berriak jorratu dira.

- **ABERRI EGUNA. 2009ko apirilaren 12an.**

Azken bi urteetan bezala, Nazio Eztatanda Guneak Aberri Eguna modu bateratuan ospatzeko eta gure nazio eskubideak aldarrikatzeko sustapen lana egingo du.

- Aberri Egunean, “nazio bat gara, zazpiak bat” mezua nagusitzea proposatzen da. Euskal Herrian gehiengo sozial eta politiko batek bere egiten dituen gako nagusien alde indarrak metatzea eta aktibatzea lortzea dugu helburu nagusia, nazio sentimenduaren indartzeari loturik.
- Nazio Eztatanda Gunearen sustapenak, Euskal Herri osoko herritarrak biltzea eta aktibatzea izango du xede. Ikuspegi ideologiko ezberdinetako lagunen deialdia gorpuztuz. Era berean, orain arteko gisan, Euskal Herriko eragile ezberdinekin harremanak landuko dira ekimena ahalik eta parte hartzaileena izateko.

- Herritarren aktibazioa ezinbestekoa izango da, bai aurretik garatu beharreko planteamenduan eta baita egunean bertan ere. Abertzaleen arteko elkarlan bideak sakontzeko proposamena zehaztuko da.
- Ikurrinaren aldeko aktibazio soziala eta instituzionala lortzeko proposamena bilduko da.

PROPOSAMENA:

Mahai gainean proposamen ezberdinak egon dira. Batetik, Aberri Eguna Euskal Herri osoan maila lokalean (herriz herri) antolatzeko ideia jaso da. Bestetik, azken urteetan bezalaxe, nazio mailako ekimen nagusi batean gauzatzearen beharra plazaratu da. Nazio Eztabaida Guneak planteamendu osagarri bat proposatzen du. Bi ikuspuntuak biltzeko proposamena, alegia.

- Aberri Eguna ekimen edo erreferentzia nagusi baten baitan ospatzea proposatzen da. Nazio gisa agertzea premiazkoa ikusten da.
- Orain arteko ezaugarritzea egokitzea proposatzen da. Nazio osoko herritarrak aktibatze eta nazio gisa indartsu agertzeko ekimen bati begira jarritz.
- Aberri Egunaren bidean, eskualde eta herrietan, abertzaleak aktibatze planteamendua gorpuztuko litzateke. Zentzu horretan, Aberri Egunaren testuinguruan, eskualde eta herrietan ekimen ezberdinak antolatze kanpaina bat antolatuko litzateke.
- Aberri Eguna, formatu zehatza eta bitarteko bidea behar bezala planifikatu, diseinatu eta garatu ahal izateko, lan talde ireki bat antolatuko da 2008ko azaroan.

- **Euskal Herriko egiturazko egoeraren azterketa burutzen hastea.**

Euskal Herriak bizi duen ataka aintzat hartuz, nazioa nola dagoen sakon aztertzea eramango gaituen eztabaida. Eremu ezberdinetako aldagai nagusiak jasoko dituen azterketa. eh'08 Nazio Eztabaidan zehar jasotako ekarpenek hausnarketa honen premia erakusten dute. Batetik, egun Euskal Herriaren argazki sakon eta integral bat egitearen beharra nabarmena delako. Eta bestetik, aurrera begira, nazio gisa jorratu beharreko lehentasunei begira, proiektu oso bat garatu ahal izateko, arlo edo eremu ezberdinei erantzuteko garaian.

Euskal Herriaren argazki oso eta estrukturala ateratzeak baina, lan sakona eta parte hartzailea eskatzen du. Errealitate eta ikuspegi ezberdinak barne biltzea ezinbestekoa da.

Honela, datozen hilabeteetan egingo diren harremanen bitartez, hausnarketa prozesu honen definizioari eskainiko zaio arreta. Hau da, eztabaidari behar den baldintzetan ekiteko, iritzi bilketa zabala egingo litzateke. Eztabaida honen lehen mugarrria eh'09 Nazio Eztabaidan jarriko litzateke. 2009ko Nazio Eztabaida bilakatuko genuke prozesu parte hartzaile eta anitza abian jarri ahal izateko une nagusia.

4.2. NAZIO IKUSPEGIAN, PARTE HARTZEAN ETA INDAR METAKETAN OINARRITUTAKO JARDUERA.

eh'08- eh'09 aldirako finkaturiko lerro eta egitasmoak garatu ahal izateko, Nazio Eztatbaida Guneak, harreman lana garatuko du. Harreman horiek, Euskal Herriko eragile, sektore eta herritarrekin ahalik eta modu eraginkorrean gauzatu behar dira. Lan honen xede nagusia, burujabetzaren norabidean nazio gisa aritzeko urrats berriak ematea da, ahalik eta indar gehienen metaketan eta ekarpenean oinarrituriko dinamika izango delarik.

Horregatik, egitasmo zehatzen garapena, nazio ikuspegian, parte hartzean eta indar metaketan oinarrituko da. Egitasmo bakoitzean egingo den lanaz gaindi, orokortasunetik lanketa hau egingo da:

- **Euskal Herriko eragile sozial, sindikal eta politikoekin harremanak.** Behin eh'08 Nazio Eztatbaida iraganda, aipatu eragileekin harreman erronda zabala egingo da. Helburu nagusia, ikuspegiak elkar trukatu eta elkarlanean aritzeko puntu komunak jorratzea izango delarik. Lan hau, nagusiki, 2008ko abendutik 2009ko otsaila artean egingo da.
- **Herri plazak Euskal Herrian zehar.** Nazio Eztatbaida Guneak euskal herritarren parte hartzea, aktibazioa eta ekarpena jorratzeko aukerak eskainiko ditu. Parte hartzeko espazio hauek, egitasmo eta dinamika ezberdinei lotuak joango dira: auzolana bultzatzeko, Aberri Egunaren antolaketan parte hartzeko...
- Era berean, dinamika ezberdinak aurrera eramateko garaian, **sektore eta lurralde ezberdinetako pertsonetikiko harremana sendotu** eta ahalik eta dinamika parte hartzaileenak bultzatuko dira. Zentzu horretan, Osoko Bilkurako kideen partaidetza sustatzeko lanari arreta eskainiko zaio, informazioa iraunkorki bideratzearekin batera, egitasmoetan parte hartzeko bideak landuz.

Iruñean, 2008ko azaroaren 8an

LAN EGUTEGI OROKORRA

AZAROA	ABENDUA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA
Hezkuntza sistema nazionala gorpuzten joateko lana garatu eta Euskal Unibertsitatearen proiektuan urratsak eman. Urrats zehatzak abenduan finkatuko direlarik.											eh'09 Nazio Eztabaida prozesua
Zazpiak bat auzolanean gunearen sorrera		Auzolan dinamikaren garapena: Xiberua Bizi DVD aurkezpena eragile eta herritarrei; esperientzia berrien lanketa; harremanak...									
Aberri Egunerako lan taldea abian jarri	Aberri Egunaren diseinu osoa	Aberri Egunaren lanaren garapena: harremanak, jendearekin antolatzea, herri ekimenak, udal edo herriko etxeetako lanketa...			12: Aberri Eguna						
Euskal Herriaren egiturazko egoerari begira, jende eta eragile ezberdinen iritzi bilketa, hausnarketa prozesuaren diseinua behar bezala egiteko eta berau gidatuko lukeen gunea eratzen joateko					Hausnarketaren diseinua egin		Hausnarketaren diseinua adostu				
	Euskal Herriko eragile sozial, sindikal eta politikoekin harremanak										
		Herri plazak Euskal Herriko eremu ezberdinetan				Herri plazak Euskal Herriko eremu ezberdinetan					